

EUROPAKO GIZARTE FUNTSAREN FINANTZA LAGUNTZA JASO DUTEN AFA-REN JARDUERAK

1. ARDATZA: langabeen laneratzea eta birlaneratzea

Neurria: Langabeei lan merkatuan sartzeko aukerak ematea.

1. ekintza. Lanerako prestakuntza

Azalpena:

Laguntza programa horren helburua da, besteak beste, langabeen laneratzea sustatzea. Horretarako, prestakuntza eta birkualifikazioa emango zaie, lan merkatuaren behar eta eskariei erantzunez.

2. ekintza. Birziklatze generikoa

Azalpena:

Laguntza programa horren helburua da, besteak beste, teknologia berriak eta kudeaketa teknikak sartzea enpresan, oro har ekoizpen sistema berri eta modernizatzea eta prestakuntza hobetzea lan merkatuan eskari handia duten sektoreetan. Neurri honetan sartuta dagoen kostua ekintza hauetan parte hartzen duten langabeei dagokiena da.

3. ekintza. Arte eta lanbide eskola

Azalpena:

Lan merkatuan gero eta eskari handiagoa duten arte eta industria lanbideen arlo ezberdinetan prestakuntza ikastaroak antolatzea.

4. ekintza. Arte eszenikoen tailerra

Azalpena:

Antzerkiko profesionalak prestatzeko proiektua, Europar Batasuneko herritarrei zuzendutako ikastaro eta jardueren bidez. Besteak beste, ikastaro hauek egin dira: profesionalen prestakuntza integrala, adierazpen dramatikoko tailerra, profesionalen espezializazioa.

Neurria: Laguntza, sentsibilizazioa eta zabalkundea

1. ekintza. Publizitate kanpainak

Azalpena:

Prestakuntza eta enplegua sustatzeko Arabako Foru Aldundiak urtero egiten dituen programak zabaltzeko ekintzak.

2. ekintza. Lanbide Heziketarantz eginiko sentsibilizazio kanpaina.

Azalpena:

Lanbide Heziketarantz eginiko sentsibilizazio eta sustapen kanpaina da, kanal ezberdinak erabiliz. Horren helburua da Lanbide Heziketari buruzko iritzi positiboa zabaltzea eta gizartean prestakuntza mota horri dagokionez dagoen ikuspegia eraberritzea, laneratze maila handia duelako.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

<http://www.alava.net/economia/promocion2.html>